

## Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2012ko uztailaren 19ko bilerako ondorio nagusien sintesia

- **Honako puntuen berri eman da:** Laguntza eskaera EJko ILPNeA Sailari, Biodibertsitate lerroa, Ibaiertzen leheneratze ekologikoa; Berringurumena, Iraunkortasun irizpideetan oinarritutako erosketetarako eskualdeko zentrala; Planak berraztertzea; Parte-hartzea ebaluazio eta jarraipen programan; Basauriko talde sozialistaren adierazpenak; Erabilitako arropa eta aprobeztatu daitezkeen bestelako etxeko objektuak biltzeko zerbitzua; Isurpen fokuen inbentarioa egiteko lehiaketa; Eskolako Agenda 21i laguntza teknikoa emateko lehiaketa; Eskualdeko figura.
- Iraileko bilerarako honako gaiak geratu dira: 2011ko Txostena; Udalsarea 21en sartzeko eskaera; Atxikimendua Conama 2012rekin.
- **Eskualdeko Bulegoa udan:** lau astez jarraian egongo da itxita abuztuan: uztailaren 30etik abuztuaren 24ra, biak barne.
- **Autoa partekatzeko zerbitzua:** zerbitzuari eta Compartir.org-ekin sinatutako kontratuari uko egitea onartu da. Horren ordean, Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalen eta udalen webguneetan doako antzeko zerbitzuetarako estekak sartuko dira.
- **Gonbidapena EEEri:** batzordeak irailean egingo duen bilerara, Alkateen Itunarekiko atxikimenduari buruzko erabakia ahalbidetzeko.
- **Batzordearen hurrengo bilera:** irailaren 20an (osteguna), 09:00etan
- **Jatorri industrialeko Isurpen Fokuen Inbentarioa:** Inguruko teknikariek proiektuari buruzko aurkezpen zehatza eskaini dute.